

Gorbeia

Parke Naturala

Parque Natural de Gorbeia

Gorbeiak 20.000 hektareako azalera du, eta gutxi gorabehera % 60, Arabako Lurralde Historikoaren barruan dago; gainerako % 40, aldiz, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan dago. Zortzi udalerri ditu: hiru Araban daude (Urkabustaiz, Zuia eta Zigoitia), eta gainerako bostak Bizkaian (Orozko, Zeberio, Artea, Areatza eta Zeanuri).

Gorbeia Parke Natural izendatu zuten 1994. urtean¹, eta 2016. urtean Natura 2000 Sarean sartu zen Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu ostean². Eremu babestuen Europako sare honen xedea europako espezie eta habitat motek epe luzean biziraun dezaten bermatzea da eta biodibertsitatearen galera etetea.

Gorbeiak bi kudeaketa tresna ditu horretarako, non biodibertsitatearen kontserbazioari lotutako helburuak betetzeko beharrezkoak diren jarraibideak, erregulazioak eta neurriak ezartzen diren: Natura Baliabideak Antolatze Plana (NBAP) eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentze Plana (EKZP).

Gorbeia tiene una superficie de unas 20.000 ha de las cuales aproximadamente el 60% pertenecen al Territorio Histórico de Álava y el 40% restante al T.H. de Bizkaia. Se distribuye en ocho municipios: 3 de ellos alaveses (Urkabustaiz, Zuia y Zigoitia) y los cinco restantes de Bizkaia (Orozko, Zeberio, Artea, Areatza y Zeanuri).

Gorbeia fue declarado Parque Natural en 1994¹ y en 2016 pasó a formar parte de la Red Natura 2000 tras ser declarado Zona de Especial Conservación². Esta red de espacios protegidos europea tiene como finalidad asegurar la supervivencia a largo plazo de las especies y los tipos de hábitat en Europa, contribuyendo a detener la pérdida de biodiversidad.


Para ello, Gorbeia cuenta con dos instrumentos de gestión en los que se establecen las directrices, regulaciones y medidas necesarias para el cumplimiento de los objetivos de conservación de la biodiversidad establecidos: el Plan de Ordenación de Recursos Naturales (PORN) y el Plan Rector de Uso y Gestión (PRUG).

¹ 228/1994 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Gorbeia aldea parke naturaltzat jotzen duena.

¹ DECRETO 228/1994, de 21 de junio, por el que se declara Parque Natural el área de Gorbeia.

² 40/2016 DEKRETUA, martxoaren 8koa, Gorbeia Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2110009) izendatzen duena.

² DECRETO 40/2016, de 8 de marzo, por el que se designa Gorbeia (ES2110009) Zona Especial de Conservación.



G O R B E I A



PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL

araba  álava
foru aldundia diputación foral

 Bizkaia
foru aldundia
diputación foral


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

natura ondarea



Gorbeia mendigunea isurialde kantauriarraren eta mediterraneoaren arteko banalerroan dagoen eremu menditsu handi bat da. Mendiko ekosistema oso aberatsak ditu, eta kontserbazio egoera onean daude. Parkearen balio naturalistiko altuak begi bistakoak dira; izan ere, batasunaren intereseko habitat ugari daude bertan, bai eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jasotzen diren espezie ugari ere. Bestalde, aipagarria da, Habitaten Zuzentarauaren³ eranskinetan jasotako flora espezieak ere badaudelako, besteak beste, *Narcissus pseudonarcissus*, *Narcissus asturiensis* edo *Trichomanes speciosum*, edo *Spiranthes aestivalis* orkidea.

Naturgune Babestu honetako azaleraren hiru herenetan baso masak daude, eta, horietatik, bi heren baso naturalak dira eta beste herena koniferoen landaketak. Pagadi, amezti, harizti, artadi eta beste hainbat basok masa zabalak eratzen dituzte, eta basoko espezieen bizileku apartak dira, hala nola muxar grisa, leporia, ipurtatsa eta basakatuarena. *Rosalia alpina* edo *Lucanus cervus* intsektu saproxilikoak ere ohikoak dira baso horietan eta, bereziki, lepatuen unadetan, bertan egoten baitira zuhaitzik zaharrenak.

Parke Naturaleko tontorren inguruetan hedatzen den mendiko larreen eta txilardien mosaikoan, EAEko mendietako hegazti komunitate esanguratsuenetako bat bizi da eta baita kontserbazio egoera hobereanean dagoenetako bat ere.

*El macizo de Gorbeia es una extensa zona montañosa situada en la divisoria de aguas cántabro-mediterránea y posee, una excepcional riqueza de ecosistemas de montaña con un buen estado de conservación. Los elevados valores naturalísticos de este Parque quedan evidenciados por la presencia de numerosos hábitats de interés comunitario y especies incluídas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas. También destaca por la presencia de especies de flora incluídas en los anexos de la Directiva Hábitats¹, como *Narcissus pseudonarcissus*, *Narcissus asturiensis* o *Trichomanes speciosum*, o la orquídea *Spiranthes aestivalis*.*

*Más de dos terceras partes de la superficie de este Espacio Natural Protegido se encuentra ocupada por masas forestales; de éstas, dos tercios corresponden a bosques naturales y el tercio restante a plantaciones de coníferas. Hayedos, marojales, robledales, encinares y otros bosques generan extensas masas que albergan especies forestales como el lirón gris, la marta, el turón y el gato montés. Los insectos saproxílicos como la *Rosalia alpina* o el *Lucanus cervus* también son comunes en estos bosques y especialmente en rodales de trasmochos que es donde se encuentran los pies de mayor edad.*

El mosaico de pastos montanos y brezales que se extiende a lo largo de las cumbres del Parque Natural cubija uno de los conjuntos de avifauna mejor conservados y más representativos del medio montano en la CAPV.

¹ Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoa

¹ Directiva 92/43/CEE del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres.

Parke Natural honetako egitura karstikoekin zerikusia duten harkaitz habitatek espezie komunitate oso berezia gordetzen dute. Parkean kobazulo asko dago, eta hauek saguzar ugariaren babeslekuak dira. Hain zuzen ere, horrexegatik da Gorbeia espezie horiek kontserbatzeko lehentasunezko eremua.

Egitura karstiko horietatik azaleratzen den erreken sare korapilatsuak ibai-sistema konplexu bat sortzen du, zeinetan Baia eta Altube errekek diren elementu esanguratsuenak. Gorbeia ibai eta ubideetan, arrain komunitate interesgarria dago, eta, horietan bereizgarrietako bat loina da. Gainera, ibai hauek erreka karramarro autoktonoaren gotorleku apurretako bat dira.

Eremu hau, halaber, oso interesgarria da anfibioentzat. Horri dagokionez, Altubeko aintzira konplexua nabarmendu behar da. Hogeitabat ur xafla daude bertan, eta oso garrantzitsuak dira talde horrentzat zein odonatuentzat (sorginorratz eta txitxi burrunziak).

Balio naturalistiko eta ekologikoez gain, Gorbeia eta bertako ingurua erreferentziako paisaia oso garrantzitsua da EAEn; izan ere, sekulako garrantzi sinboliko eta kulturala du, oro har, euskal gizartearentzat eta, bereziki, inguruan bizi direnentzat.

Los hábitats de roquedo relacionadas con las formaciones kársticas de este Parque Natural albergan una comunidad de especies muy peculiar. En sus numerosas cuevas se refugian gran cantidad de murciélagos y es por ello que Gorbeia está considerada como zona prioritaria para la conservación de estas especies.



La intrincada red de arroyos que mana de estas formaciones kársticas genera un complejo sistema fluvial que tiene su máximo exponente en los ríos Baias y Altube. Los ríos y regatas de Gorbeia albergan una comunidad piscícola caracterizada por la presencia de la loina o madrilla y son uno de los pocos reductos de cangrejo de río autóctono.

Este espacio es también de gran interés para los anfibios. En este sentido destaca el complejo lagunar de Altube, que engloba una veintena de láminas de agua de gran importancia para este grupo y también para los odonatos (libélulas y caballitos de diablo).

Más allá de los valores naturalísticos y ecológicos, Gorbeia y su entorno constituye un referente paisajístico de gran relevancia en la CAPV, con una enorme carga simbólica y cultural para el conjunto de la población vasca en general, y para la población de su entorno en particular.

Patrimonio natural

Gorbeiko Parke Naturala 20.000 ha (g.g.b.)
Parque Natural de Gorbeia 20.000 ha (aprox.)



M. Sabino

EKONOMIA ETA KULTURA ECONOMÍA Y CULTURA

Parke Naturaleko lurzati gehienak titulartasun publikokoak dira, eta Arabako Lurralde Historikoaren kasuan, azaleraren % 97 hartzen dute. Bizkaia-aren kasuan, berriz, erdira mugatzen dira (% 52).

Parke Naturalaren mugen barruan ez dago biztanlegunerik, Altuben eta Zuiako udal mugartean sakabanatuta dauden baserri batzuetan izan ezik. Hala eta guztiz ere, lurraldea gizakiak esku hartze handia izandako ingurune batean dago, eta hamabi mila biztanle baino gehiago bizi dira bertan.

Parke Naturalean lurzatiak dituzten zortzi udalerrietako biztanleen zati batek baino ez du zuzeneko harremana Gorbeiko lurraldea erabiltzearen ondorioz sortutako dinamikarekin; izan ere, biztanle landun gehiena zerbitzuen sektorean (%65) eta industrian (% 24) aritzen da, gertuko industriaguneetan. Nekazaritza eta Basogintza sektorea nahiko baxua da kasu guztietan, % 2 eta % 3 bitartekoa Bizkaiko udalerrietan eta pixka bat altuagoa Arabakoetan, batik batik, Urkabustaiz eta Zigoitian (% 7 eta % 4, hurrenez hurren).

Gorbeiko mendigunea Euskal Herriko mendirik enblematikoenetako bat da, eta kultura ondare garrantzitsua ere bai. Gorbeian, hainbat mendetan, modu berezian ustiatu dira natura baliabideak, eta, horri esker, ondare etnografiko berezi bat eratu da honako hauei lotutako askotariko elementuekin: artzain sarioiak (etxolak, txerritegiak, ukuiluak, etzalekuak), babeslekuak, iturriak, elurzuloak, kirikinausiak, ikaztegiak, karobiak, monumentu megalitikoak eta abar.

Eremuko kultura aberastasuna, halaber, bertan aurki ditzakegun elementu interesgarri ugarietan islatzen da, elementu arkitektonikoak eta arkeologikoak denak. Hurrengo erakusketa kuboetan, aberastasun hori ikusi ahal izango dugu udalerriz udalerriz.


La mayor parte de los terrenos del Parque Natural son de titularidad pública. En el caso del T.H. de Álava abarcan un 97% de la superficie, mientras que en el caso de Bizkaia se reduce casi a la mitad (52%).

Dentro de los límites del Parque Natural no hay núcleos habitados, salvo el enclave de Altube y algunos caseríos dispersos, localizados en el término municipal de Zuia. Sin embargo, el territorio se encuentra en un entorno muy humanizado, con una población superior a los doce mil habitantes.

Sólo parte de la población de los 8 municipios que tienen terrenos en el Parque Natural está directamente relacionada con la dinámica derivada del uso del territorio de Gorbeia ya que la mayoría de la población ocupada se dedica al sector servicios (65%) y a la industria (24%) en los núcleos industriales próximos. El sector agroforestal es en todos los casos relativamente bajo, entre un 2 y 3% en los municipios de Bizkaia y algo superior en los de Araba, sobre todo en Urkabustaiz y Zigoitia con el 7% y el 4% del total respectivamente.

El macizo de Gorbeia constituye uno de los montes más emblemáticos de Euskal Herria, y conserva un importante patrimonio cultural. El singular aprovechamiento de los recursos naturales que se han dado en Gorbeia durante siglos ha originado un patrimonio etnográfico particular con elementos diversos relacionados con las majadas pastoriles (chabolas, cochiqueras, corrales, etzalekus), refugios, fuentes, neveros, ericeras, carboneras, caleros, monumentos megalíticos, etc.

La riqueza cultural del ámbito también se refleja en el elevado número de elementos de interés, tanto arquitectónico como arqueológico, que podemos encontrar en el mismo. A lo largo de los siguientes cubos expositivos podemos ver esta riqueza municipio a municipio.



Joseba del Villar



Basogintza

Gaur egun, zuraren ekoizpena da parkeko jarduera ekonomikorik garrantzitsuenetako bat, batez ere, iparraldeko isurialdean, non hazkunde azkarreko konifera landaketa ugari dauden. Titulartasun publikoko baso hostotsuetan, nagusiki, egur sortak erabiltzeko eskubidea duten tokiko entitateetako biztanleek (herriak edo kontzejjuak) kontsumitzeko egurra ustiatzean da.

Uso forestal

La producción de madera es en la actualidad una actividad económica relativamente importante, en especial en las comarcas de la vertiente norte donde son abundantes las plantaciones de coníferas. En los bosques de frondosas de titularidad pública, se realiza un aprovechamiento principalmente de leña para consumo propio de los habitantes de las entidades locales (pueblos o concejos) con derecho a suertes foguerales.



Joseba del Villar



Joseba del Villar

Abeltzaintza

Behi, ardi eta zaldiek txilardi eta mendi-larreen mosaikoak modu estentsiboan erabiltzen dituzte udaberrri amaieratik udazken amaiera arte. Ardi latxan oinarritutako artzaintza nabarmendu beharra dago; izan ere, neolitikokoan ekin zitzaion jarduera honi eta ikur bereizgarria da paraje honetan. Alabaina, gaur egun, atzera egiten ari da. Behi eta zaldi aziendak, aitzitik, gora egin du azken urteetan. Gorbeia Parke Naturalean larratzen den azienda 4.000 bat ardik, mendiko 600 zaldik, 1.000 behik eta 80 ahuntzek osatzen dute.

Hauexek dira Gorbeia arraza autoktonoak eta aldaerak: latxa ardia, aurpegi beltza, Gorbeia ekotipoa; bertoko behiak, Piriniarrak eta betizuak; Euskal Herriko mendiko zaldia eta pottoka; Azpi-gorri, sabelalde ilehoriko ahuntz beltza, eta Gorbeia euskal artzain txakurra.

Amaitzeko, azpimarratu beharra dago erlezaintza ere oso garrantzitsua dela Gorbeia Parke Naturalean; izan ere, ezti ekoizle askoren erlategiak daude bertan.

Uso ganadero

El ganado bovino, ovino y equino utilizan de forma extensiva el mosaico de brezales y pastos de montaña desde finales de primavera hasta finales de otoño. Cabe destacar el pastoreo de oveja latxa como característico, cuya actividad se remonta al neolítico y que actualmente se encuentra en retroceso. El vacuno y equino en cambio, ha aumentado en los últimos años. La cabaña ganadera real estimada en el Parque Natural es de unas 4.000 ovejas, 600 caballos de monte, 1.000 vacas y 80 cabras.

Las razas y variedades autóctonas presentes en el Gorbeia son: oveja latxa cara negra ecotipo Gorbeia, vacas pirenaicas, terreñas y betizu, caballo de monte del País Vasco, Pottoka o poney vasco, la cabra negra de vientre rubio Azpi-gorri y el perro pastor vasco variedad del Gorbeia.

Por último destacar la importancia que tiene la apicultura en el Parque Natural de Gorbeia que cuenta con colmenares de numerosos productores de miel.



Turismoa eta aisialdia

Gorbeia mendia euskal mendizaletasunaren erreferentziako puntu argia da eta gertuko hiriguneekiko kokaleku estrategikoan dago. Honek mendilerro hau jende gehien jasotzen duenatariko bat izatea eragin du. Hauexek dira jarduera nagusiak: mendi ibiliek, espeleologia, mendiko txirrindularitza, zaldi-ibilbideak eta eskalada. Jarduera horiek guztiak Naturgune Babestuko kudeaketa dokumentuetan jasota dauden erregulazioak dituzte.

Ekipamenduak eta harrera guneak

Parke Naturalaren barruan, edo harekin muga eginez, aisialdirako hainbat zona dago, oso ekipamendu ezberdinekin. 2 Parketxe ere badira, bata Areatzan (Bizkaian) eta bestea Sarrian (Arabán). Beroiek, bisitariei arreta eta informazioa eskaintzeko zentroak dira, eta ingurumen hezkuntzarako programa eta jardueren eskaintza zabaldua dute, bai eskola haurrentzat, bai interesa duen pertsona ororentzat.

Uso turístico y recreativo

La cima del Gorbeia es un referente en el montañismo vasco y su situación estratégica respecto a zonas urbanas próximas han hecho de este macizo uno de los más frecuentados. Son característicos: el senderismo, la espeleología, el ciclismo de montaña, las rutas ecuestres y la escalada. Todas ellas cuentan con regulaciones específicas recogidas en los documentos de gestión de este Espacio Natural Protegido.

Equipamientos y zonas de acogida

Existen dentro del Parque Natural, o limitando con él, un gran número de áreas recreativas con equipamiento muy variable. En el ENP existen dos Parketxes, uno de ellos en Areatza (Bizkaia) y el otro, en Sarria (Álava). Ambos equipamientos funcionan como centro de atención e información para los visitantes y cuentan con una amplia oferta de actividades y programas de educación ambiental tanto para escolares como para el público en general.

Ehiza, arrantza eta beste produktu batzuen aprobetxamendua

Gorbeia Parke Naturalean baimenduta dago ehiza egitea. Naturgune babestu honek ehiza araubide bereziaren kalifikazioa du. Araban, existitzen diren sei ehiza eremuen antolamendurako eta jarraipenerako planetan oinarritzen da ehizaren kudeaketa. Bizkaian, aldiz, baimendutako espezie bakoitzarentzat orbanak mugatzean datza, eta lurraldearen gainerakoan debekatuta dago ehiza jarduera egitea. Kasu honetan, udalari bakoitzarentzat prestatzen dira ehiza antolamendurako planak.

Aisialdiko arrantza, oro har, debekatuta dago Parkeko ibai eta erreketan.


Onddoak eta perretxikoak batzea, ostera, lurralde historiko bakoitzeko araudien arabera arautzen da; izan ere, Gorbeian maiz egiten den ohiko jarduera bat da.


Aprovechamiento cinegético, piscícola y de otros productos

En el Parque Natural de Gorbeia se puede cazar. El espacio natural protegido tiene la calificación de régimen cinegético especial. En Álava, la gestión cinegética está basada en planes de ordenación y seguimiento de los 6 cotos de caza existentes. En Bizkaia, en cambio, está basada en la delimitación de manchas para cada una de las especies autorizadas. En este caso, los planes de ordenación cinegética se elaboran para cada municipio.

La pesca deportiva se encuentra vedada de forma general en los ríos y arroyos del Parque.

La recolección de setas y hongos, regulado por normativas en cada uno de los TTHH son actividades muy habituales y con gran aceptación en Gorbeia.





• **Azalera:** 102,42 km². Gorbeia Parke Naturalaren barruan: 3.955 ha (Parkearen azalera osoaren % 19,77).

• **Populazioa:** 2.650 pertsona: 1.800 Zubiaurko hirigunean eta gainerakoak 100 auzo baino gehiagotan. 14 landagune daude eta horien artean azpimarratu behar dira Zubiaur, Jauregia, Ibarra, Zalaoa, Urigoiti, Murueta, San Martín, Gallartu, Mantzarraga edo Garai.

• **Ekonomia jarduerak:** Orozkoko erliebe malkartsua dela eta udalerriko jarduera ekonomikoa lehen sektorean zentratzen da, batez ere ukuiluko abeltzantza intentsiboan. Hazkunde azkarreko espezieen landaketak bultzatutako baso ustiapena ere jarduera ekonomikoa garrantzitsua da. Industria-jarduera, nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapenetik eratorritako baliabideen transformazioan oinarritu izan da eta honen lekuko dira udalerrian topa ditzakegun zurgindegi zein janari-industriak.

• **Superficie:** 102,42 km². Dentro del Parque Natural de Gorbeia: 3.955 ha (el 19,77% del total del Parque).

• **Población:** 2.650 personas: 1.800 en el núcleo urbano de Zubiaur y el resto en los más de 100 barrios existentes. Hay 14 núcleos rurales, entre los que destacan Zubiaur, Jauregia, Ibarra, Zalaoa, Urigoiti, Murueta, San Martín, Gallartu, Mantzarraga o Garai.

• **Actividades económicas:** lo accidentado del relieve hace que la actividad económica de Orozko se concentre en el sector primario, principalmente la ganadería intensiva, estabulada y productora de carne. Otra actividad importante es la explotación forestal, potenciada con la introducción de especies de crecimiento rápido. La actividad industrial hasta ahora ha estado relacionada con la transformación de recursos agrícolas, ganaderos y forestales de la zona y queda reflejada en las pequeñas industrias de alimentación y en los talleres de madera.



Orozko



Orozkoko
Udala


www.orozko.eus



G O R B E I A



PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL

araba  álava
foru aldundia diputación foral

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

ZUBIAUR

Zubiaur udalerriko gune nagusia da eta haranaren barruan hiriburuaren funtzioak betetzen ditu; izaera hori oso argi ikusten da, eraikinen hierarkian, udaletxeko plazara hurbildu ahala. Espazio honetan XVIII. eta XIX. mendeetan maiztergo-kontratuekin basoetako partzelak eta baserriak edukitzeaz aparte burdinolen eta erroten jabeak ziren Orozkoko burgesek euren jauregi barrokoak eta neoklasikoak eraiki zituzten, baita bestelako etxetzarrak ere.

Ondare-interesa duten beste eraikin batzuen artean gaur egun **Orozkoko Museo Etnografikoa** eta Turismo Bulegoa dauden jauregi barrokoak azpimarra daiteke, Plazako dorrea edo **Olartetarren dorrea** izenekin ezagutzen zena.



Zubiaur es el núcleo principal del municipio, con funciones de capitalidad dentro del propio valle, y como tal, existe una clara jerarquía de edificios según nos acercamos a la plaza del ayuntamiento. Es en este espacio donde la burguesía de Orozko, propietaria de industrias ferronas y molineras, además de parcelas de monte y caseríos de inquilinato, erigieron sus palacios barrocos y neoclásicos a lo largo de los siglos XVIII y XIX, además de grandes casonas.

Entre otros edificios de interés patrimonial, destaca un palacio barroco en el que se albergan **El museo etnográfico de Orozko-Orozkoko Museoa** y la Oficina de Turismo, que se conocía con el nombre de **Torre de la Plaza o de los Olarte**.

IBARRA

Ibarrako hiriguneak herrixka baten egitura dauka eta nolabait herri nagusiaren funtzioa betetzen du haranaren alde sakonean. Olarteko San Bartolome parrokia nagusitzen da:

Olarteko San Bartolome parrokia

Parrokia horrek agerietan duen lehen aipamena 1381ekoa da eta patronoak ziren Olartetarren leinuari lotuta agertzen da; dena dela, datari dagokionez baditu arinagokoak diren elementu batzuk, adibidez hegoaldeko atea. Gaur egungo fabrikaren zatirik handiena XVI. mendearen hasierakoa da. Parrokiak Olartetarren hilobia mantentzen du, eta baita Guiot de Beaugranteren aparteko Pietate bat eta Flandriako triptiko manierista bat ere, bata eta beste Errenazimenduko benetakoa artelanak.



El conjunto urbano de Ibarra semeja a una pequeña aldea que ejerce de cierta capitalidad en este fondo valle. Destaca la Parroquia de San Bartolomé de Olarte:

Parroquia de San Bartolomé de Olarte

Su primera constatación documental es de 1381, asociada al linaje de los Olarte, sus patronos, pero aun hay elementos de datación anteriores, como puede ser el acceso Sur. La mayor parte de su actual fábrica es de comienzos del siglo XVI. Conserva la tumba de los Olarte, así como una excelente Piedad de Guiot de Beaugrant y un tríptico manierista procedente de Flandes, verdaderas obras de arte del Renacimiento.

URIGOITI

San Lorenzo eliza

Nabe bakarreko tenplua, zaharragoa izan zen beste baten gainean estilo neoklasikoan berreraiki zutena. Toki horretan eliza bat zegoen 1385ean, baina kokapenaren arabera uste da Goi Erdi Aroko herrixka baten sorkuntzari lotuta dagoela.



Iglesia de San Lorenzo

Templo de una sola nave reconstruido en estilo neoclásico sobre otro anterior. Existía ya una iglesia en este lugar en 1385, aunque por su ubicación se piensa en un origen asociado a la fundación de una aldea altomedieval.

ZALOA

Zaloako Andra Maria

Jakin badakigu toki berean beste eliza bat zegoela 1385erako eta agian horregatik Orozkon Erdi Arokoa izatearen itxuririk gehien duen eliza da. Zurezko ganga azpimarratu behar da. Koruak jatorrizko eskubandak eta solibak mantentzen ditu, tailak eta polikromiarekin.



Santa María de Zaloa

Se sabe que existió una iglesia en este mismo lugar desde al menos 1385, y quizá por ello sea el templo de aspecto más medieval de Orozko. Destaca su bóveda de madera. El coro conserva el pasamanos y las solivas originales, con tallas y policromía.

SAN MARTÍN

Albizu-Elexagako San Martin parrokia

Toki horretan eliza bat dago Erdi Arotik, baina gaur egungoa barrokoa eta aipagarria da Kexaako San Joaneko mojak direlako elizaren benetako patronoak eta jabeak.



Parroquia de San Martín de Albizu-Elexaga

Existe una iglesia en este lugar desde la Edad Media, pero la actual es barroca y de gran notoriedad ya que son las monjas del monasterio de San Juan de Kexaa las verdaderas patronas y dueñas del templo.

MURUETA

Murutako plazak eta inguruko eraikinek mailako landagunearen itxura dute. Azpimarratzekoa da plazan eraikin barroko bat ere badagoela.

San Pedro parrokia

Zatirik handiena XVI. mendearen bigarren erdikoa da, hau da, San Joan elizaren garai berekoa. Barruan bi erretaula barroko kontserbatzen dira, Arrosarioarena eta San Pablarena, gurutze plateresko bat eta kalitate handiko Pietate bat, 1520 urtearen ingurukoa dena. Erretaula nagusia neoklasikoa da eta elizburuko pintura garrantzitsuak estaltzen ditu.



La plaza de Murueta y sus edificios que la circundan ofrecen la apariencia de un núcleo rural de cierta entidad. Por ello, es posible encontrar un edificio barroco en dicha plaza.

Parroquia de San Pedro

La mayor parte data de la segunda mitad del siglo XVI., coetánea de la de San Juan. En el interior conserva dos retablos barrocos, del Rosario y San Pablo, una cruz plateresca, y una Piedad de gran calidad, datada hacia 1520. El retablo mayor es neoclásico, y oculta las importantes pinturas de la cabecera.



Itzina ★

Itzina Gorbeiaiko Parke Naturaleko formazio karstikoen adibiderik onena da. Airetik inguruan altxatzen den haitz-lautada da, barru ahurra babestu nahi duen gailur bat eratuz.

Itzinako mendigunea kareharrizko paisaia ikusgarria eta malkarra da. Bertan nabarmentzekoak diren koba, leize eta lurpeko ibai ugari daude, haize bortitzen eta euriaren higaduraren eraginez sortutakoak. Koba nagusia Supelegor da eta asko dira bertan sortu diren kondairak; jakina, horien artean Mariren, Anbotoko Damaren, aldi baterako egoitza izateari buruzkoak daude.

Itzina es un magnífico ejemplo de formaciones kársticas del Parque Natural del Gorbeia. Desde el aire se ve como una meseta rocosa que se alza en el entorno, con los bordes formando una cresta, queriendo proteger el interior cóncavo.

El macizo de Itzina es un impresionante e inhóspito paisaje calizo en el que destacan la gran cantidad de cuevas, simas y ríos subterráneos debido a la erosión por el fuerte viento y el efecto de las lluvias. Su principal caverna es la llamada Supelegor, que ha dado origen a múltiples leyendas, entre las que sobresalen las relativas a la residencia temporal de Mari, la Dama de Anboto.



Neberabarri

Mendi-multzoaren hego-ekialdean kokatuta dagoen elur-zuloa, Gorosteta mendiaren ipar-mendebaldeko hegalean. Arrakala naturala da, 18 m-ko luzera, 10 m-ko zabalera eta 26 m-ko sakonera duena; bertan harrizko arkuak eraiki zen (zubi antzeko bat) bertara elurra sartu eta elurra ateratzeko lanak errazteko. Bizkaiko elur-zulorik garrantzitsuenak izan zen bertan elurra urte osoan kontserbatzen zelako eta Bizkaia osora eramaten zelako. Udalak urtero enkantera ateratzen zuen ustiatzeko XVIII. mendearen hasieratik XX. mendearen hasierara arte, hau da, izotz artifiziala iritsi zen arte. Hasieran elur hori medikuntzarako erabiltzen zen eta ostean arraina kontserbatzeko eta edari freskagarriak egiteko erabili zuten.

Nevera situada al sureste del macizo, en la ladera noroeste del Gorosteta. Grieta natural de 18 m de larga por 10 de ancha y 26 de profundidad, con una construcción de arco de piedra (especie de puente) que tenía como finalidad facilitar la introducción y extracción de nieve. Fue la nevera más importante de Bizkaia, pues conservaba la nieve durante todo el año y la transportaba a toda Bizkaia. El Ayuntamiento la sacaba anualmente a subasta para su explotación, desde principios del siglo XVIII hasta principios del siglo XX, que llegó el hielo artificial. Su utilización se debió inicialmente a razones medicinales y después para la conservación del pescado y para preparar bebidas refrescantes.



Kirikiño-hesiak

Gaztaina beti izan da, mende askotan zehar, funtsezko produktua gure herriko elikaduran. Gaztainak batu ostean basoan eraikitzen ziren toki batzuetan uzten zituzten, "kirikiño-hesiak". Harrizko hormadun esparru zirkularrak dira, estaldurarik gabekoak; elementu horien diametroa 3-7 m artekoa izaten zen. Hormen altuera 1,80 m-koa zen. Elementuak sartzeko ate bat zuen, 0,90 m-ko zabalerakoa. Izena fruitua gordetzen duen arantzadun azaletik datorkio, horri esaten zitzaiolako kirikiñoa.

Kirikiño-hesiak

La castaña, fue tradicionalmente y durante siglos, un producto que formaba parte importante de la alimentación de este pueblo. Una vez recogidas se almacenaban en unas construcciones repartidas en el monte llamadas "kirikiño-hesiak". Son unos recintos circulares con paredes de piedra y sin cubiertas, con un diámetro que varía entre 3-7 m. Las paredes tenían una altura de 1,80m. En ellas se abría una puerta de acceso de 0,90 m de anchura. Su nombre se debe a la cáscara con espinas que cubre el fruto, llamada erizo.



Orozkoko Museo Etnografikoa

Barruan haranean denboran zehar izan diren elementuen, dokumentazioaren eta lekukotzen erakusketa egiten da parte hartzeko proposamen interaktibo bidez eta ikus-entzunezko bitartekoen aplikazio bidez. Museoak hiru solairu ditu. Lehenengoan haraneko bizitza tradizionala ezagutu daiteke. Bigarrenean Gorbeiaen goiko aldeetan gizakiak izan duen presentzia aztertzen da; protagonistak hiru dira: artzainak, egurgileak eta ikazkinak. Eta beheko solairuan panelen bidez Orozkoren ibilbide historikoa egin daiteke Historiaurretik gure garaietara arte.

Museoaren agendan urtean zehar honakoak aurkituko ditugu: aldi baterako erakusketak, hitzaldiak, ekitaldi gastronomikoak, umeentzako jarduerak, Orozko ezagutzeko bisita gidatuak, zerupeko museo bat eta Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak.

Museo etnográfico de Orozko

En su interior se exponen elementos, documentación y testimonios de la vida en el valle a lo largo del tiempo, a través de propuestas interactivas y participativas, y con aplicaciones de medios audiovisuales. El museo ocupa tres plantas. La primera está dedicada a la vida tradicional en el valle. La segunda planta se dedica a la presencia humana en las zonas altas de Gorbeia. Son tres los protagonistas: pastores, leñadores y carboneros. Y la planta baja contiene unos paneles informativos que conforman un recorrido histórico de Orozko desde la Prehistoria hasta nuestros días.

En la agenda del museo encontraremos durante el año: exposiciones temporales, charlas, eventos gastronómicos, actividades infantiles, visitas guiadas a Orozko, un museo al aire libre y Jornadas europeas del patrimonio.



Hilarriak

Oderiaga, Aranekoarri eta Kurtzegán bat-batean gertatzen zen heriotza baten ondorioz bertatik igarotzen ziren ibiltarien otoitza bilatzeko hilarriak daude. Ezagunena eta, bere tipologia arabera, zaharrena Aranekoarriko Erdi Aroko hilerria da.

Estelas funerarias

En Oderiaga, Aranekoarri y Kurtzegán se encuentran tres estelas funerarias erigidas para buscar el rezo de los caminantes ante un fallecimiento repentino. La más conocida y, por su tipología, la más antigua, es la estela medieval de Aranekoarri.



TOP 10

Ezinbestekoa/imprescindible
www.gorbeiaeuskaadi.com

Orozkok Parke naturalean dituen ia 4.000 ha-tan Itzinako karst paregabea nabarmentzen da. Paraje honetan leize eta harkaiztiekin lotutako habitaten adibide onak behatu ditzakegu. Harkaitz pareta bertikaletan eta amildegi magaletako harriztan sustratu ezegonkor eta idorretara moldatutako landare espezie bitxiak hazten dira. Paraje hau hegazti errupikolentzako ere oso garrantzitsua da eta hemen aurki ditzakegu Saizuriak Gorbeian dituen ohiko kumalekuetako batzuk. Gailurrei lotutako mendi larreek ere presentzia nabarmena dute paisaia honetan. Basoei dagokienean pagadiak dira nagusi, nahiz eta amezti baso zabalak ere badauden, batez ere hego-magaletan.

En las casi 4.000 ha de superficie que tiene Orozko dentro del Parque Natural destaca el imponente karst de Itzina donde podemos encontrar buenos ejemplos de hábitats rocosos y de cuevas. En los pedregales de pie de cantil y las paredes rocosas podemos encontrar especies de plantas muy peculiares adaptadas a las condiciones de sequía e inestabilidad de estos sustratos. Este paraje también es muy importante para las aves rupícolas, de hecho, es uno de los lugares habituales donde anida el alimoche. En estas zonas de cumbre, también hay una importante presencia de pastos montanos cercanos a las cumbres. Las principales manchas de bosque autóctono corresponden a hayedos pero también hay extensas manchas de marojal, sobre todo en las laderas más orientales.

ELEMENTU AIPAGARRIAK ELEMENTOS DESTACABLES



Txilardiak

Txilar espezie ezberdinez (*Erica vagans* eta *E. cinerea*) osatutako tamaina ertaineko satrakadiak dira. Altitude ertainetan espezie hauei lotuta Otea (*Ulex spp.*) ere ager daiteke. Abeltzantzarekin lotuta daude eta batez ere, ezti ekoizpenerako dira garrantzitsuak. Zohikaztegien inguruan txilardi mota aipagarri batzuk hazten dira, *Erica tetralix* eta *E. ciliaris* espezieez osatutako txilardi hezeak. Habitat hauek mendiguneetan garatzen dira, mendi-hegaletako depresio txikietan eta oso arraroak dira EAEn. Gorbeian oso leku gutxitan agertzen dira, esaterako Kolometa inguruan.

Brezales

Son formaciones arbustivas de talla media en los que generalmente dominan varias especies de brezos (*Erica vagans* y *E. cinerea*) y en ocasiones acompañados por la argoma (*Ulex spp.*). Están muy relacionados con el aprovechamiento ganadero y en especial con el aprovechamiento apícola. Merecen especial mención los brezales húmedos de *Erica tetralix* y *E. ciliaris* ligados a zonas de trampal. Estos hábitats son muy raros en la CAPV. Se desarrollan en zonas de montaña ocupando pequeñas depresiones en medio de laderas. En la parte de Bizkaia están presentes, por ejemplo, en el entorno de Kolometa.



Ferra saguzar handia (*Rinolophus ferrumequinum*)

Tamaina handiko saguzarra da, 40 bat cmko hegal-zabalerakoa. Espezie gregarioa da eta ale ugari koloniak sortzen ditu. Neguan kobazueloetan hartzen du babesa, temperatura baxu eta konstantea eskeintzen dioten guneetan. Kumatze-garaian aldiz, nahiago izaten ditu utzitako eraikinak. Itzina bezalako paraje karstikoak oso garrantzitsuak dira kiroptero komunitatearentzat. Esaterako, Parke Naturaleko "swarming site" bakarra Itzinan detektatu da. Gune hauek ezinbestekoak dira, izan ere, estaltze-garaia iristean espezie desberdinetako ehundaka ale leku zehatz horietan biltzen dira ugaltzeko eta honek, populazioen arteko gene fluxua ahalbideratzen du. Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan **Kaltebera** gisa izendatua¹.

Murciélago grande de herradura (*Rinolophus ferrumequinum*)

Murciélago de gran tamaño con una envergadura alar de unos 40 cm. Son especies gregarias y forman colonias muy numerosas. En invierno se cobijan en cuevas en busca de temperaturas bajas pero constantes. En cambio en la época de cría, prefieren las edificaciones abandonadas. Parajes kársticos como Itzina, son muy importantes para la conservación de los quirópteros. Cabe destacar que Itzina es el único lugar del Parque Natural en el que se ha detectado un "swarming site". Estos son lugares que congregan a cientos de murciélagos de distintas especies en la época de apareamiento y son muy importantes para el flujo genético entre poblaciones. Se trata de una especie catalogada¹ como **Vulnerable**.



Berberis arrunta (*Berberis vulgaris*)

Lekanda inguruko harkaitz-pareta eguzkitsuetako arrakaletan hazten den sastraka. EAEn Gorbeian, Durangaldean eta Araba hegoaldeko leku puntual batzuetan besterik ez da ezagutzen. Bere banaketa murriztua klimarekin lotuta egon daitekeela uste da eta populazio hauek, klima gaur egungoa baino kontinentalagoa zen garai bateko aztarnak izan daitezke. Hala ere, zerealen gorrinaren hostalaria izanik, gizakiak modu esanguratsuan murriztu duela pentsatzen da, gaitz honi aurre egiteko leku askotatik desagertaraziz. Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan **Bakana** gisa izendatua¹.

Agracejo (*Berberis vulgaris*)

Planta de porte arbustivo presente en grietas soleadas de rocas calizas cerca del monte Lekanda. En la CAPV solo está presente en Gorbeia, en las montañas del Duranguesado y algunos puntos localizados del sur de Álava. Su reducida distribución puede deberse a causas de tipo climático, ya que es un vestigio de épocas climáticas más continentales que la actual. Pero posiblemente la influencia humana haya sido también significativa, reduciendo los efectivos de esta especie al ser la planta hospedante de la roya de los cereales (*Puccinia graminis*). Se trata de una especie catalogada¹ como **Rara**.

¹ 167/1996 Dekretua Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena eta ondorengo moldaketak.

¹ Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora Silvestre y Marina (Decreto 167/1996 y posteriores modificaciones).




- **Azalera:** 12 Km² Gorbeiaiko Parke Naturalaren barruan: 126,94 ha (parke osoaren % 0,63)
- **Populazioa:** 740 pertsona.
- **Ekonomia jarduerak:** Industria, ostalaritza, nekazaritza eta baso ustiaketa.

- **Superficie:** 12 Km² Dentro del Parque Natural de Gorbeia: 126,94 has (el 0,63% del total del parque).
- **Población:** 740 personas.
- **Actividades económicas:** Industria, hostelería, explotación agrícola y forestal.



Artea



ARTEAKO UDALA

www.artea-udala.org



G O R B E I A



PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL

araba  álava
foru aldundia diputación foral

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



Gaztelu eta Elexabeitia

Arteak tradizio bikoitza du bere izenean. Alde batetik, Gaztelu eta Elexabeitia izena dago, eta, bestetik, Arteaga / Artea. Lehenengo izena data ezjakin batean gertatu zen bi parrokiaren (Gazteluko eta Elexabitiko parrokia) elkartzetik dator. Antzinako bi parrokia horiek, gaur egun, udalerriko auzoak dira. Gaztelu eta Elexabeitia izan da tradizionalki udalerraren izen ofiziala, nahiz eta bertako biztanleek Arteaga / Artea izenarekin deitzen zioten.

Castillo y Elejabeitia

Artea tiene una doble tradición en su denominación. Por un lado está la denominación de Castillo y Elejabeitia, y por otra la de Arteaga / Artea. El primer nombre se debe a que el municipio surgió en una fecha indeterminada por la unión de dos antiguas parroquias, la de Castillo y la de Elejabeitia, que son actualmente barrios del municipio. Castillo y Elejabeitia ha sido tradicionalmente el nombre oficial del municipio aunque sus habitantes lo denominasen más comúnmente bajo el nombre de Arteaga / Artea.



San Miguel eliza

Oinplano angeluzuzen sinplea duen landa-parrokia txiki bat da, XVI. mendearen hasieran eraikia eta hurrengo ehun urteetan interesgarriak diren armatzeko arotzeria-elementu ezberdinekin osatua: Zursare-koru zizelkatua (1540 ca.), bikote teilatua almizate zapalarekin (1600 ca.) kanpailen dorrea, 1621ean armatua, Basterrak deformatua 1923an eta erabat eraberritua eraikinaren gainerako zatiarekin 1990ean. Kapera ireki bat eta kanposantura bideratutako gunea bat biltzen duen arkupe perimetral inguratzailea du burualdearen inguruan.

Iglesia San Miguel

Pequeña parroquia rural de planta rectangular simple, edificada a principios del siglo XVI y completada en los cien años sucesivos con distintos elementos de carpintería de armar de cierto interés: el coro tallado de celosía (1540 ca.), la techumbre aparente de pares con almizate plano (1600 ca.) y la torre de campanas, armada en 1621, deformada por Basterra en 1923 y completamente restaurada con el resto del edificio en 1990. Dispone de un pórtico perimetral envolvente que incluía una capilla abierta y zona destinada a cementerio en torno a la cabecera.



"Torrea" dorretxea

Gaztelu gisa ezaguna, hortik dator udalerraren aurreko izena. Goragune batean kokatua, bidegurutzearen gainean, Santa Maria elizarekin eta Errotazarretik gertu zegoen errota-burdinolarekin lotuta zegoen. Oso aldatuta egon arren, oraindik posible da bere ezaugarri bereizgarriak ikustea: Bolumen kubikoa, kokapen menderatzailea, etxebizitzarako sarrera jasoa eta bao gotikoak fatxada guztietan.

Casa Torre "Torrea"

También conocida como Gaztelu, a ella debe su nombre la anterior denominación del municipio.

Situada en un altozano sobre la encrucijada, estaba asociada a la iglesia de Santa María y al molino-ferrería cercano de Errotazarra. A pesar de estar muy transformada, todavía es posible apreciar sus rasgos característicos: volumen cúbico, posición dominante, acceso elevado a la vivienda y vanos góticos en todas las fachadas.



San Martin basiliza

Izen bereko auzoan dagoen Tourseko San Martin basiliza muino txiki batetik altxatzen da eta harriaren gainean finkatzen da. Ate-orrian kisketa gotikoa mantentzen da, San Migelekoaren antzekoa. Iparraldeko horman egurrezko eta ebaketa herrikoidun erretaula barroko bakuna altxatzen da eta horren bi arkuen azpian Tourseko San Martin eta San Antolingo martiriaren irudiak daude.

Ermita de San Martín

Situada en el barrio de su mismo nombre, la ermita de San Martín de Tours, se eleva desde una pequeña colina y se asienta sobre roca. En la hoja de la puerta se conserva el pasador gótico, semejante al de San Miguel. En el muro septentrional se levanta el sencillo retablo barroco de madera de corte popular, que bajo sus dos arcadas cobija las imágenes de San Martín de Tours y el mártir San Antolín.



"Ugarte" dorretxea

Aurrekoaren antzeko ezaugarriekin, lehenengo solairuko apuntatutako tarteen bitartez kanpora iraultzen den etxea da. Etxabeak eta ganbarak, berriz, gezi-formako zenbait argi-zulotatik bakarrik jasotzen dute argia.

Casa Torre "Ugarte"

De similares características que la anterior, se trata de una mansión que se vuelca al exterior a través de los huecos apuntados de su planta primera, mientras que el bajo y el camarote tan sólo reciben luz a través de algunos luceros asaetados.



"Galiano" dorretxea

Artea Zeberioekin lotzen den bidearen adarraren abioaren gainean kokatzen da, San Miguel elizatik metro gutxira.

Casa Torre "Galiano"

Se sitúa sobre el arranque del ramal del camino que une Artea con Zeberio y a escasos metros de la iglesia San Miguel.

Qué ver Zer ikusi



Ekomuseoa edo Euskal Baserria

XVII. mendeko euskal baserri baten kopia bat da, harriarekin eta egurrarekin eraikia. Goiko solairuan museo etnografikoa dago, ibilaldi bat euskaldunen arbasoen historian zehar, sailkatutako benetako 1.000 pieza baino gehiagorekin. Gainera, Ekomuseoak euskaldunen historia (glaziazio handietatik XIX. mendera arte) erreproduzitzen duen parke tematiko bat du. Martxan ikusi daitezke antzinako tresna eta makina guztiak: esate baterako, burdinola, errota iringilea, arotzeria hidraulikoa, ogia egiteko labea eta abar.

Bildumak antzinako erabilera eta ohituren arabera jarrita dauden altzariak, erremintak, tresnak, aparailuak, jantziak eta bestelako objektuak biltzen ditu eta jantzi tipikoak daramatzaten pertsonaiak ikusi daitezke.

Hainbat modulu ditu: sukaldea, jangela, amonaren logela, emakumeen gela, ganbara, txerri-hilketa, upeltegia, abarketa-ekoizpena, arrantza, erlijioa, herri-medikuntza, jolasak eta herri-kirolak, ehiza eta animalia-habitataren kontserbazioa, aleak, artilea eta lihoa.

El Ecomuseo o Euskal Baserria

Se sitúa en un caserío reproducción de una casa rural vasca del siglo XVII, construido en piedra y madera. En la planta superior está el museo etnográfico, un recorrido por la historia de los antepasados de los vascos, con más de 1.000 piezas auténticas y clasificadas. Además, el Ecomuseo cuenta con un parque temático que reproduce la historia del hombre vasco desde la época de las grandes glaciaciones hasta el siglo XIX. Se pueden ver en funcionamiento todos los artilugios y maquinarias antiguos, como la ferrería, el molino harinero, la carpintería hidráulica, el horno de hacer pan, etc.

La colección reúne muebles, utensilios, herramientas, aparatos, vestuario y otros objetos instalados según los antiguos usos y costumbres y también pueden verse personajes vestidos con atuendos típicos.

Cuenta con diversos módulos: la cocina, la sala comedor, el cuarto de la abuela, el cuarto de mujeres, el camarote, la matanza, la tonelería, la fabricación de alpargatas, la pesca, la religión, la medicina popular, juegos y deportes populares, la caza y la conservación del hábitat animal, el grano, lana y lino.



Leon eta Mauriziaren omenezko monolitoa

Frontoiaren ondoan dago. Monolito horrekin, Arteako bizilagunek herriko bi trikitilariak, Maurizia panderolojea eta Leon albokaria, omendu eta gogora ekarri nahi dituzte.

Monolito a Leon y Maurizia

Situado junto al frontón, con este monolito el municipio de Artea quiere homenajear y recordar la figura de esta pareja de vecinos trikitilari, la panderetera Maurizia y al albokari Leon.



Ibilbideak

Artea Gorbeaiako Parke Naturalera sartzeko abiapuntu aproposa da. Esparza auzotik erraz asko iritsi daiteke Upokomakatzako aisialdi-gunera. Auzoetatik ere herria ezagutzeko modu polita eskaini dezaketen ibilbideak abiatzen dira (22km, 7km, 4km eta 5km-ko ibilbideak).

Rutas y senderos

Artea es una buena base para acceder al Parque Natural del Gorbea y disfrutar de su entorno.

Tiene diversas rutas alrededor de los barrios del pueblo que pueden ser una bonita forma de conocer el entorno (rutas de 22km, 7km, 4km y 5km).

Artea da Parke Naturalari azalera gutxien ematen dion udalerria. Lur horien zatirik handiena ekoizpenerako landaketez estalita dago eta landatutako espezie nagusia insignis pinua da (*Pinus radiata*). Hala ere, oraindik ere haritz kandudunaz (*Quercus robur*) osatutako baso-gotorleku txikiak mantentzen dira. Harizti mota hau, isurialde atlantikoko landaredi bereizgarria da baina oso murriztua izan da, bereziki egur-aprobetxamendua eta nekazaritza-abeltzaintzako erabilera dela eta. Abeltzaintzarekin lotutako larre eta sega belardiak ere udalerrri honetako paisaiaren parte dira. Azkenik, nabarmentzekoa da Artean interes geologikoko leku bat ere badela, hain zuzen ere, Arteako Flysh beltza. Elementu hau BI-3513 errepidetik beha daiteke, Orozkorako bidean, Lauretako etxeetara iritsi baino lehen.

Artea es el municipio que menos superficie de terreno tiene dentro del Parque Natural. La mayor parte de ella está ocupada por plantaciones de producción dominadas por el pino insignis (*Pinus radiata*). Aun así, todavía se mantienen pequeños reductos de robledales de fondo de valle dominados por el roble pedunculado (*Quercus robur*), vegetación característica de la vertiente atlántica pero muy reducida debido a la explotación forestal y usos agropecuarios principalmente. Los pastos y prados relacionados con la actividad ganadera también forman parte del paisaje de este municipio. Por último, destacar también la presencia del flysch negro de Artea, declarado como lugar de interés Geológico. Este elemento se puede observar desde la carretera BI-3513 en dirección a Orozko y poco antes de llegar a las casas de Laureta.

ELEMENTU AIPAGARRIAK ELEMENTOS DESTACABLES



Sega belardiak

Habitat hau isurialde atlantikoko landazabal-paisaia ezaugarritzen duen elementuetako bat da eta udalerrri honetan dagoen interes bereziko habitatik hedatuena da. Baserriari lotutako belardi eta zelaiek osatzen duten habitat hau urte osoan zehar berde mantentzen da. Belardi hauek lurzoru sakonetan garatzen dira eta ximaurrarekin ongarrituak edota ganaduak zuzenean zapalduak eta ongarrituak izaten dira. Tradizioz sega bidez ustiatuak izan dira. Habitat hauek loraldi zoragarria eskeintzen digute, izaten duten espezie aniztasun handiari esker.

Prado de siega

Es el hábitat de Interés Europeo más frecuente en el municipio de Artea. Son características formaciones de hierba y campa ligadas al caserío y que se mantiene verdes todo el año, caracterizando el paisaje vegetal de la zona de campiña atlántica. Estos prados se desarrollan sobre suelos profundos, abonados con estiércol o pisoteados y abonados directamente por el ganado, y han sido tradicionalmente aprovechados mediante siega. La elevada diversidad de especies les confiere una vistosa y espectacular floración.



Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*)

Iberiar penintsulako espezie endemikoa da eta bere banaketa eremuaren ekialdeko muga EAEn dago. Barnealdean leku gutxitan ezagutzen da eta Gorbeia Parke Naturala leku horietako bat da. Schreiber muskerrak baso-orla eta soilguneetako landaredia izaten du bizileku, hau da, txilardi, sastrakadi eta larreak. Halaber, Parke Naturaleko populazioak errekasto eta kanal inguruetako eremu hezeetara lotuta agertu ohi dira. Espezie honek jasaten duen mehatxurik handiena, hain justu ere, baso lanen eta nekazaritza jardueraren ondoriozko habitat mota horien desagertzea da. Espezie mehatxatuen EAEn katalogoan **Interes berezikoa** gisa izendatua¹ dago.

Lagarto verdinegro (*Lacerta schreiberi*)

Es una especie endémica de la península ibérica cuyo límite sur de distribución se encuentra en la CAPV. Gorbeia es uno de los pocos lugares de interior donde se ha constatado la presencia de esta especie. El lagarto verdinegro habita preferentemente zonas de vegetación abierta de claros de bosques, como brezales, matorrales y prados. Las poblaciones del Parque Natural están además muy ligadas a las zonas de mayor humedad cercanas a arroyos o canales.

La mayor amenaza que sufre esta especie es precisamente la alteración de este Hábitat debido al uso forestal y agrícola. Se trata de una especie catalogada¹ de **Interés Especial**.

¹ 167/1996 Dekretua Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena eta ondorengo moldaketak.

¹ *Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora Silvestre y Marina* (Decreto 167/1996 y posteriores modificaciones).